



NOLA PIZTU ZURE SEME-ALABEN HITZ EGITEKO GAITASUNA

ADIN TXIKIKO HAURRAK DITUZTEN GURASOENTZAT

2- 6 urte bitarteko haurrak, nabarmen areagotuko du bere hizkera. Bi elementuk lagunduko dute garapenean:

*Genetika eta biologia

*Gizarte-esperientziak eta ingurumenarekiko elkarreragina.

Nola hobetu dezaket nire seme-alabaren hizkuntza?

1 Astiro eta argi hitz egiten.

Astiro hitz egin behar zaio, argitasunez eta ondo artikulatuz. Komeni da ez hitz egitea inguruan soinu-iturririk badago, hala bada, mezua ezin zaio behar den bezala heldu.

2 Bere garapen-mailarako hiztegi egokia erabiltzen.

Haurraren jotzean hiztegi egokia erabiltzea komeni da. Hitz berriak pixkanaka sartuko dira, eta haurrak uler dezakeen azalpen edo adibide batekin batera joango dira beti.

3 Haurrari interesatzen zaizkion eta arreta pizten dioten gaiez hitz egiten.

Haurraren interesetatik abiatu behar da. Pixkanaka, interes-eremuak zabaltzen joan daitezke, elementu eta hitz berriak sartuz.

4 Haurraren hizkera okerra ez errepikatzen.

Hitz edo esamolde okerrak erabiltzen dituenean, ez da zuzentzeko eten behar, horrela akatsa finkatzen baita, hitz zuzena eskain dakioke guk erabiltzen dugun esaldi batean. Adibidez, "Ua nahi dut" esaten badu, "Hemen duzu ura" erantzun daiteke.

5

Hiztegia garatzen laguntzen.

Gauzen ezaugarriak adieraziz, hiztegia aberastea gomendatzen da. Adibidez, zuhaitz bati buruz hitz egiten ari bagara, hitz egin haien koloretaz, dauden formez, usainaz, tamainaz...

Errimak eta abestiak ere hiztegia ikasteko modu ezin hobekak dira.

6

Ipuinak ozen kontatu edo irakurtzea.

Garrantzitsua da bere adinera egokitutako ipuinak kontatzea, hiztegia, hizkuntzaren egitura, arreta eta memoria aberasteko. Irakurriz gero, patxadaz egin behar da, eta pertsonaiei, argumentuari buruz... galdetzeko aprobetxa daiteke.+

ESPEZIALISTAREKIN KONTSULTATU BALDIN ETA...

2-3 urte

- Ez da hizkuntzarekin komunikatzen eta isolatzeko joera du.
- Ez ditu perpaus sinpleak ulertzen.
- Esaten zaion guztia errepikatzen du (hizkuntza ekolalikoa).
- 50 hitz baino gehiago ez ditu esaten.
- Bere ekoizpen gehienak ez dira ulertzen.
- Bi hitzen konbinaziorik eza.

3-4 urte

- Ez ditu hiru elementutako esaldiak igortzen.
- Bere testuinguru naturaletik kanpo hitz egiten duena ulertezina da.
- Ez ditu silabarik imitatzen.
- Ez du zer edo non galdetzen.
- Ezin du adierazi zertan ari den.
- Ez ditu esaldiak testuingurutik kanpo ulertzen.

4-5 urte

- Hiru hitz edo gutxiagoko esaldiak erabiltzen ditu.
- Hizkuntzaren soinu gehienak ez ditu behar bezala ahoskatzen.
- Hiztegi murriztua.
- Izenordainak, artikulak edo aditzeak ez ditu aipatzen esaldietan.
- Esaldi luzeak ulertzeko zailtasunak

5-6 urte

- Oraindik, artikulatzeko zailtasunak daude.
- Ez die galderei modu koherentean erantzuten.
- Esaldien egituraren erroreak.
- Gertatu zaion zerbait kontatzeko ezintasuna.
- Toteltzea.

Komunikazioa errazteko estrategiak

ESTRATEGIA	DEFINIZIOA	ADIBIDEA
Hizketa doitzea	Egiturak sinplifikatzea, partikulen gehiegizko entonazioa, erritmo motela, argitasuna.	Haurra eskolan dago.
Galdera onak erabiltzea	Komunikazioaren jarraipena bermatu behar dute, gure interesa erakutsi eta ikusmina sortu.	Eta...? Zer jarraitzen du...? ¿Non...? Zergatik? Nola dabil?
Imitazioa	Haurraren eredua imitatzea. Beren akatsez modu ez-oldarkorren jabetzen laguntzen die (abusurik ez egiteko estrategia).	Haura: "Patanoa jan dut". Heldua: "Patanoa jan duzu".
Estimulazio fokalizatua	Hizkuntza-helburu bat modu intentsiboan eta kontzentratuan lantzea, haurrai ahozko erantzuna emateko inoiz eskatu gabe. "Bonbardaketa"	A: Mendian dago. A: Hondartzan dago. A: Zinean dago.
Zabalkuntza	Helduak, haurrak esan duena hobetuta erantzuten dio.	Haurra: aita", Heldua: "Bai, aita dator"
Eragite	Helduak laguntzen dio erantzunaren zati bat eskainiz.	Haurra: Umea ja... da. Heldua: Umea jaten ari da.
Modelaketa	Eredu gisa jarduten duen beste persona batek aurrez emandako hizkuntza-eduki bat errepikatzea.	Haurra:... Heldua: Katuak alde egin du. Haurra: Katuak alde egin du.
Moldaketa	Haurrak ondoz ondoko hurbilketen bidez nahi duena adieraz dezan saiatzen gara, eta indartu egiten ditugu.	Haurra: ata gaio do Heldua: aita Ha: aita gaio do He:aita gaixo dago

"Hitz egidazu ezagutu zaitzada"

GEHIAGO JAKITEKO:

Faber, A.Mazlish, E.
Cómo Hablar para que los Niños Escuchen y
Cómo Escuchar para que los Niños Hablen